

ARRASATE'KO PARROKOA ETA NAPOLEON BONAPARTE

Roke Mendizabal

Aspaldi Frantzia'ko adiskide on batek, Aita Klemente Leygues'ek,—berak nimbait irakurrita edo— Napoleon eta Arrasate'ko Parrokoaren artean izandako arazo jakingarri bat konta eustan:

Napoleon Arrasate'n egon zanean, jakiñik erri onetako bere areriorik gogorrena bertako abade nagusia zala, amarrukeri maltzur bat erabilliaz ondatu eban: Parroko jauna deitu, eta oso lagun eta alaiki besotik obatu, ta beragaz erriko plazan, gora ta bera, ibillera luze bat egin eban. Napoleon'ek, zur eta biurri, abadeari berba ta berba, barre aundiak eragin, esku zapladatxoak bizkarrean... Bitartean mondragotarrak, amorroz irakiten, baztar guztietatik zelatan. “Begira —diñotse alkari— Parrokoa Napoleon'egana aldatu jaku...” Gau aretan erritarrak abade-etxeari tiroka... Eta parroko gixajoak erritik iges bear izan eban.

Urteak geroago, Santiago de Chile'n nengoala, gertaera orren idatzizko testigutzaren billa, ango Frantzia'ko enbajadara deitu neban. Bertako kultur-arduradunak erantzun eustan euren liburutegian gai orretzaz ezer ez eukiela, baiña Santiago'n, Dr. Château jaunagana zuzendu ninduan. “Berau —esan eustan— ‘Círculo Napoleónico’ deritxoen elkartearen buru da. Ez da Frantzia'n, ez iñun, osagille onek baiño geiago Napoleon'ekiko gaitean dakienik.”

Joan nintzan, ba, beragana. Guillermo Château Aguayo jaunak, osagille-olia, jakintsua, jator eta umore onekoia, oso abegi ona egin eustan. “Círculo Nappleónico”ren zuzendari onek esan eustanez, elkarteko bazki-deak, irurogeien bat, geienak jatorriz frantsesak, noizean bein euren bille-rak izaten dabez, baita batzuk Frantziara joan be “Napoleonlogian” sakkontzeko. Bear be, umorea eta... txanponak bear...

Dr. Château'ren etxea museo bat da, Napoleon Bonaparte'ren museoa, nun eta Santiago de Chile'n, munduaren beste ertzean... Iñun dire-neko Enperadorearen oroigarri, irudi, ezpata, bastoi, txano, jantzi, guren-den agiriak azpimarratzeko erabillitako lumak, eta batez be liburuak eta liburuak. Napoleon'i buruz argitaratuak. Oneik izan el dira Biblia eta Don Quijote'ren urrengo ugarienak.

Château jaunak lagunduta an aurkitu neban “*Memoires du Général Marbot*”, Marbot Generalaren gomutak, eta bertan, billa nebillena, Mondrago’ko Parrokoaren eta Napoleon’en arteko gorabereng esamesa. Literatura aldetik idatzi ederra emoten dau. Egiaren aldetik, ez dakit ba... Jenofonte ta Julio Zesar’engandik onaiñio gudagizon zenbatzuen gomutak, “memoriak” bezela, Marbot generalarenak be ez ete dira bere kemen, azkartasun eta gurenden goratzarre ederregitxoa?

Dana dala, Napoleon Bonaparte’ren gudagidari leial au aren guda-ekintza guztietan izan ei zan. Oso ernai eta adoretsu, berak diñoanez beintzat. Amaika bidar zauritua izan zan, beste ainbeste guda-burruketan. General Frantses onek mondragotarra oso oroitze bildurgarria gorde eban. Irun’dik urten eta Gasteiz’era eldu arte, Gipuzkoa eta Araba guztian ez dauz kontetan Mondrago’ko gertaerak besterik. Mondragotarrok zelako gogorrak diran jakiñazoteko, Mina guerrillero ospetsuaren ordezkoa be Arrasate inguruau jaioa zala, esaten dau... Baliteke. Badaezpadan, kontuz mondragotarrakin!

Ara Arrasate’ko Parrokoaren eta Napoleon’en arteko gertaldia frantsesarik biurtua:

“Mondrago’ko komandantea Piamonte’ko kapitan bat zan, urtietan Frantzia’ko gudarostean egoana, oso azkarra eta kementsua...”

“Mondrago’ko Parrokoa frantses’en etsairik sutsuena zan. Baiña Napoleon erri orretatik Paris’erako bidean igaro zanean, 1809’ngو. Urta-rrillean, elizgizon ori, ikusguraz eraginda, beste erritar guztiak lez, Frantzia’ko Emperadorea ikustera, berau egoan postaetxe aurrera dator. Komandanteak ikusten dau Parrokoa, badoa zuzen beragana, eutsi eskutik eta ekarten dau Napoleon’egana, eta ozengi, jente guztiak entzun dagien, esaten dautso Emperadoreari: “Jauna, emen ekarten dautso berorri erri oneko Parroko Jauna, beroren anai Jose Erregearen serbitzari onik eta zintzoena!...”.

“Napoleon’ek egitzat artzen dau piamontetar maltzurrik diñoana eta, abegi biozkor eta adiskidetsuena egiten dautso elizgizonari... Ala, salduta geratzen da Parrokoa, erri osoaren aurrean.”

“Gau orretan bertan bere etxera sartzera doala, fusil-tiro bategaz beso baten joten dabe. Larregi ezaguten ebaizeak abadeak bere erritarrak... eta iges egin eban erritik” (1).

(1) “Le commandant de Mondragon était un capitaine piémontais, servant depuis très longtemps dans l’armée française, où il était connu pour sa rare intelligence et pour son intrépidité...”

“Le curé de Mondragon était un des plus foudreux ennemis des Français. Néanmoins, lorsque Napoleon passa dans cette ville pour retourner à Paris, en janvier 1809, cet ecclésiastique, poussé par la curiosité, s’étant rendu devant la maison de poste, ainsi que toute la population, pour voir l’Empereur, fut aperçu par le commandant de place, qui marchant droit à lui, le prit par la main et, le conduisant vers l’Empereur, dit de manière à être entendu par toute la foule: “Jai l’honneur de présenter à votre Majesté le curé de cette ville, comme un des plus dévoués serviteurs du roi Joseph, votre frère!...” Napoléon, prenant pour argent comptant ce que disait le madré

Erriko Parrokoak iges eginda gero, Arrasate'n jasotako beste gertaera goibel bat be badakar Marbot generalak:

“Napoleon'en gudaldaldian —Madride eta Paris arteko errege-bidea gordeko edo— Arrasate'n frantsesen gudaritalde bat egoan ez ain urria.”

“Bein Gasteiz'erutz bizikaiak eta armak eroaten joian frantses talde bateri Araba'raiño laguntzeko, piamontetar komandanteak bialtzen dauz bere menpeko gudari geienak, bera ogeigaz bakarrik errian geratua. Feria eguna zan. Erria baserritarrez beteta. Erriko postaetxeko ugazaba —frantsesen arerio amorratua— basarritar eta kaletar guztiak berotu, eta frantsesen kuartelaren aurka eroaten dauz, bera buru, guarniziñoko gudari guztia lepoa mozteko asmoz. Mondragotarren erasoa gogorra da. Baita frantsesen eustea be. Komandanteak dana galdua ikusirik, ogei gudariokin burrunbadan eta tiroka urten kuarteletik, erritarren erdira sartu, eta komandanteak zuzen ugazabagana jo ta biotz erdi-erditik ezpatea sartzen dautso. Berealaxe ugazabaren gorputza narrastaka kuartelera sartu ta bal-koitik txintxilizka ixegenit dabe, ikagarrizko tirokadea jentearen gaiñera jaurtiaz... Bizirik geratu direnak atzera egiten dabe. Gabean eltzen dira goizean urten ziran frantses taldekoak...”

Eta onetan amaitzen da arrasatearen ekintza...”

D'après Marbot. Marbot'ek diñoanez...

Acotaciones de José Letona sobre la presencia de Napoleón y los Franceses en Mondragón con datos tomados de diversos archivos

1. En la época de la anécdota citada por el general Marbot, era párroco de Mondragón don Manuel María de Upategui. Párroco de Garagarza y arcipreste de Léniz, don Juan de Bengoa, igualmente enemigo del Francés y huido del pueblo, principal promotor de la constitución de una nueva Diputación Provincial, resistente a Napoleón, en contra de la Diputación establecida en Guetaria, connivente con los franceses.
2. Con la ayuda de don José Luis Iñarra, párroco de Mondragón, saqué una relación de los fallecidos en el pueblo en acción de guerra durante la invasión napoleónica. Entre franceses y españoles a quienes se dio sepultura y que fueron asesinados o muertos en el hospital son en total 32. De las bajas de guerra, el francés no daba cuenta.
3. Según asegura don Miguel de Madinabeitia en su manuscrito “Principales curiosidades de la Villa de Mondragón”, en las actas del Ayunta-

Piémontais, fit le meilleur accueil à l'éclésiastique, qui se trouva ainsi compromis malgré lui, vis-à-vis de toute la population!... Aussi, dès le soir même, le curé reçu en retrant chez lui un coup de fusil qui le blesse au bras!

“*Mémoires du Général Marbot*”. Librairie Hachette. 1966. Paris. Chap. IX. p. 309 et ss.. Suite de la Guerre d'Espagne.

miento hay una cuenta de 84 reales por los laureles que se pusieron en la bocacalle para el recibimiento de Napoleón.

4. D. José M.^a de Uranga en sus “Apuntes sobre sucesos y cosas de Mondragón”, dice:

“Durante la guerra de la independencia, el francés invasor estableció en Mondragón la Comandancia general de la región, y aquí residió el Comisario francés, y aquí se concertaban todas las contribuciones que imponía a todos los pueblos próximos, como víveres, ropa, dinero, etc., sucediéndose las peticiones a un ritmo implacable y continuo. Se tuvo que echar mano de todo lo utilizable: sisas, contribuciones directas, ventas de montes, dinero de las bulas, de las memorias pías, plata y oro de las iglesias, etc.”

“En los cinco años de ocupación se arruinaron estos pueblos y particularmente Mondragón, por la acción más directa del extranjero.”

“Emplazó la artillería en lo alto de Santa Bárbara y destruyó la ermita.”

5. Documento curioso sobre la invasión francesa que se encuentra al comienzo del libro de bautizados n.^o 3 de la parroquia de Uríbarri, Mondragón:

“El día veintidós de junio de mil ochocientos y trece en este lugar de Uríbarri se vatiernon las tropas del tirano vuenaparte con el famoso Longa y su división, estos vencieron aquellos y les echaron de Mondragón.”

“El día veinte cinco del mismo mes de junio de mil ochocientos y trece estubieron ay acampados los exercitos ingleses y portugueses en el castaño de Anima Zuri, distrito de este pueblo, al mando del Jeneralísimo Belitón inglés: Esto sucedió siendo cura y beneficiado D. Juan Prudencio de Ugarte.”

6. Batalla de “Anima Zuri”, Uríbarri, Mondragón. “Longa”: famoso guerrillero de la guerra de la Independencia. Se llamaba Francisco Anchía y era herrero de oficio al comenzar la campaña. Nació en Puebla de Arganzón, y en 1831 vivía aún con el grado de general.